

Autoak dira ozeanoetara iristen diren mikroplastikoen herenen jatorria



ARG.: Steinar England/Unsplash.

Ozeanoetako mikroplastikoen % 30 errepidean sortzen da, [Nature Communications aldizkarian argitaratutako ikerketa batean kalkulatu dutenez](#). Ikerketa horren arabera, urtero errepidean sortutako ia 200.000 tona mikroplastiko iristen dira ozeanoetara eta bestelako ur-ekosistematarara. Horietatik, 140.000 tona inguru PM_{10} partikulak dira, 10 mikrometro baino txikiagoak, eta beste 52.000 tona $PM_{2,5}$ motakoak, 2,5 mikrometro baino txikiagoak. Partikula horietatik guztietatik, gehienak pneumatikoen urraduraren ondorioz sortzen dira, baina galgaren erabilerak ere sortzen ditu.

PM_{10} partikulek 5-11 egunez bidaiatzen dute, eta sortzen diren eremuetatik gertu geratu ohi dira. $PM_{2,5}$ partikulak, berriz, 18-37 egunez egon daitezke atmosferan, eta eremu urrunetara iritsi daitezke, adibidez, Artikora. Hain zuzen ere, horrek kezka eragin die zientzialariei. Ohartarazi dute partikula horiek izotzaren albedoa txikitu dezaketela, eta, horren ondorioz, berotze globalean ekarpena egin. ●

X kromosomaren sekuentzia osoa lortu dute

X kromosomaren sekuentzia osoa ezagutzea lortu dute NHGRiko zientzialariek, alderik alde, hutsunerik gabe. Ikertzaileek nabarmendu dute lorpen honek "aro berria" ekarri duela genomikara, orain arte kontuan hartzen ez ziren genomaren zatiak kontuan hartzeko bidea ireki duelako.

Giza genom oraindik badira ezagutzen ez diren ehunka hutsune. DNAREN zati errepikakorrak dira, batez ere kromosomen erdialdean kokatuta daudenak. Ikertzaileek uste dute horietan ere aurki daitekeela osasunaren ikuspuntutik esanguratsua izan daitekeen informazioa.

Orain arteko teknikekin DNA zati txikiak sekuentziatu zitezkeen. Orain DNA zati handiak aztertze-ko gai diren bi tresna erabili dituzte, eta, software berezi baten bitartez, zati horiek berreraiki dituzte.



ARG.: Ernesto del Aguila III (NHGRI).

Gizakiak dituen 24 kromosomen artean, X kromosoma lehenetsi dute, hainbat gaitz kromosoma horri lotuta daudelako. Baina hurrengo erronka da gainerako kromosomekin berdin jarraitzea. Ahalegin horretan, aurreratu dute bereziki zaila izango dutela 1. eta 9. kromosomak argitzea, horiek errepikakorrak diren DNA zati handiagoak dituztelako. ●